






Battita eta Mariano. Lehen arokoa, Espainiako Gerra Zibilaren aurretiko testu liburua da.

Lutelestia. Lehen arokoa, 1932. urteko testu liburua. Iturriotz Pirmin izan zen egilea.



Xabierto. Lehen arokoa, Oso liburu berritzailea izan zen, pedagogikoki aztertuz gero.

Saioka 1, Proiektuak eta gaiak. Bigarren aroko testu liburua. Bilduma ezaguna izan zen.



Erroetatik kanpo

Euskal testu liburuek Euskal Herriaz zer dioten eta nola dioten aztertu du Begoña Bilbaok bere ikerketa lanean

Zer ikasten da euskal kulturaren izenean? Testu liburuek aztertu eta Euskal Herriaren inguruan irakasten denaz hainbat datu lortu ditu Bilbaok bere ikerketa lanean: *Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean, Euskal Herriko eskoletan.*

Ane Sarasketa

Begoña Bilbao pedagogoak egindako lana ikerketa izateaz gain, gonbita bat ere bada; hausnarketarako gonbita, hain zuzen. Euskal Herriko eskoletan erabiltzen diren hainbat liburu aztertu ditu Bilbaok, eta haietan Euskal Herriaren eta bere izaeraren gaia nola jorratzen den ikertu du. Izan ere, teoriarik guztien arabera, testu liburuek erabilera handia dute hezkuntzan; ikasgeletako lana bideratu egiten dute egun; alegia, nortasunaren garapenerako gida ere badira, nolabait. Bestalde, kontuan hartu beharrekoa da herrialde garatuenetan testu liburua dela eskoletan gehien erabiltzen den ikas-materiala. Baita gurean ere.

Hala, garrantzitsua da haietan zer eta nola lantzen den. Eta, orain artean, gaiaren inguruko ikerketa gutxi egin dira Europa osoan. Bilbaoren esanetan, lehen aldia da, gurean, halako ikerketa bat egiten dena. European, berriz, testu liburuen gainean ikertzen da; Frantzia eta Alemanian adibidez, garrantzi handia du.

Azken hamarkadetakoa testu liburuetan oinarrituta, mendean atzera egin du ikertzaile bilbotarrak, XX. mendeko testu liburuen artean konparaketak egiteko. *Euskal kultura* izeneko gaia nola jorratzen duten aztertu ostean, testu liburuek duten indar potentziala adierazi nahi izan du.

Euskal kultura

Gure identitatearen zeinuak zehaztu gabe daude eta beraz, zaila da eskolan irakatsi beharrekoa mugatzea. «Ez dago modu zehatz bakar bat kultura definitzeko. Ostera, alderantzizko prozesua egin dut:

liburuetan, euskal kultura gisa agertzen den hori aztertu dut». Hala izanik, Euskal Herriak eta bertako kulturak zera batuko luke bere baitan gaur egungo testu liburuetan: paisaia batetik; euskara bestetik; eta hirugarren multzo batean, jaiak, gastronomia, pertsonaiak, kirolak, ohiturak, mitologia, musika eta dantza. Euskal kultura lantzeko osatutako gaiak bere baitan jasotzen dituzte halako elementuak. Hala ere, bertan ematen den informazioa azalekoa dela aitortu du Bilbaok, mugatua. «Ikerketa lanaren ondorio nagusiak aipatzekotan, zera esango nuke. Batetik, Euskal Herriaren irudia oso mugatua dela testu liburuetan; azalekoa da, eta gainbegiratu eta berplanteatu beharrekoa. Gehienetan, gaiaren azalpena Hegoaldeko antolaketa politikoen arabera izaten da. Eta euskal kulturaren ezaugarriak ez dira beti Euskal Herriarekin identifikatzen; gehienetan, autonomiekin identifikatzen dira. Horregatik, askotan, Euskal Herria eta Euskal Autonomia Erkidegoa parean gelditzen dira, esanahi bera izaten dute», ekin dio. Izan ere, uste du gaiak alor politikora begiratu jorratzen direla; eta, aldiz, alor sozio-kulturala baztertu egiten dela. «Gizarte honen izaera soziala eta kulturala irakastea izan beharko luke abiapuntua. Ondoren, politikoki nola gauden antolatuta azaldu beharko litzate-

Begoña Bilbao (pedagogo)

«Mende hasieran iparraldera begira egiten ziren liburuek modernoak ziren. Egun, aldiz, behera begira egiten dira»

ke, egoera juridiko-politiko ere hor dagoelako. Izan ere, ikerketako emaitzek erakusten dutenez, ingurunearen ezagutzaren arloan joera nagusia Euskal Herriaren ingurukoak jorratzeko, gai bakarra erabiltzen da ikasturte osoan.

Testu liburu orotan, zenbait elementu finkoak dira. Hala nola, ama hizkuntza: euskara. «Gure hizkuntza bakarra da munduan, zaharra da, jatorri ezagunik gabekoa. Hala-ko datuak azaltzen dira liburu gehienetan. Gero, hizkuntza mapak agertzen dira: euskararen atzerakadak azaltzeko. Hala ere, ez dute asko sakontzen gaia». Euskara Euskal Herriko hizkuntza dela liburu gehienetan agertzen da. «Baina, bestalde, Espainiako hizkuntza dela ere agertzen da batzuetan. Hala definituta aurkitu dugu zenbait liburuan. Gaur egungo ikuspegi mende hasierakoa baino politikoa da».

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan lantzen da, lehenengoz, Euskal Herria gai gisa. «Ikasleak gaia jorratzen duen lehen aldia da. Eta lehen hurbiltzea hori oso garrantzitsua da, ezen Euskal Herriari buruz haurrak jasotzen duen lehen irudia baita».

Mendean barrena

Dena den, egungo testu liburuek eta mende hasierakoak ez dira berdinak. Lurraldearen informazioa modu batera eskaintzen da garai bakoitzean. «Orduko testu liburuetan, Euskal Herria osorik lantzen zen, edo, bestela, lurraldeka; zazpi probintziak, alegia. Egun, Euskal Herria batzuetan da Euskal Herria; zoritxarrez, gutxitan».

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga nabarmendu egin da, nonbait: «Orain, EAE, Nafarroa eta Iparraldea agertzen dira, eta azken hori gutxitan hegoaldeko testu liburua bada». Eskolako curriculumak baino zeresan handiagoa omen dute halakoetan argitaletxeek. «Haiek erabakitzen baitute gaiari zenbat eman eta zein tratamendu erabili».

Testu liburuetako informazioa aztertzen jarraituz gero, ondokoaz ohar daiteke bat: euskal kultura, gehienetan, arbasoen kultura da.

Ikerketa, taldean

Begoña Bilbaok aurkeztutako tesia beste lan zabalago baten zati bat da. Berez, hiru alorretan banatutako lana da. Izan ere, Bilbaorekin batera, Karmele Perezek eta Gurutze Ezkurdiak euskal testu liburuak ikertu dituzte: Zientzia, Teknologia eta Lanbideen alorra batek; eta Historia eta Geografia besteak, hurrenez hurren. Hirurek Euskal Herriaren erreferenteak kontuan hartu dituzte.

Begoñak bere ikerketa maiatzean aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Karmele Perezek, berriz, abenduaren 20an aurkeztuko du. Gurutze Ezkurdiak, ostera, aurrerago. Guztira, hirurogeita hamar testu liburu hustu dituzte, eta 13 mila orrialde eta 22 mila ikono baino gehiago aztertu. Eta, halako azterketetarako metodologia ezarri da. Bestalde, kontuan hartzekoa da Lehen Hezkuntzako 5. mailako testu liburuak aztertu dituztela. «Adin honetan, 11 urterekin, lantzen da, lehenengoz, Euskal Herria gai moduan eskoletan. Beraz, ikasleek jasotzen duten lehen irudiaz ari gara».

Mende oso bat izan du erreferentzia gisa ikerketa lanak. Dena den, azken hamarkadako —Espainiak LOGSE legea abian jarri zuenetik gaur arte— hamar liburu aztertu dituzte. Batik bat euskaraz argitaratutako testu liburuak aztertu dituzte —hala ere, frantsesez eta gaztelaniaz idatzitako zenbait liburu ere ikertu dituzte—. Eta, gero, XX. mendean atzera egin dute: Espainiako Gerra Zibilaren ostetik Frankismoaren diktaduraren amaiera artekoak batetik; eta Gerra Zibilaren aurrekoak, azkenik. Bestalde, ikerketetatik at gelditu diren datuak ere etorkizunean argitara emango dituzte.

«Euskal Herriko eskoletan erabiltzen diren euskarazko liburu gehienak itzulpenak dira»

«Ez da oraingo kultura. Heldu zitzaigun; gure aitona-amonek egiten zuten. Arbasoengandik jaso ditugu euskara eta bestelako ohiturak. Gure kulturak, bizia baino gehiago, iraganekoa dela dirudi». Ez zaio ematen gaurko erreferentziarik. Euskara eta euskal kultura iraganarekin identifikatzen dira ia kasu guztietan.

Euskal Herriarekin identifikatzea zaila izaten da halakoetan: «Ez zaio identifikatzeko eredurik ematen ikasleari. Zerekin identifikatuko da ikaslea? Hartzen diren aspaldiko ereduak ez dira egokiegia ikaslearen bizimodurako. Erantsiak dira, ez oinarritzekoak».

Didaktikaz bi hitz

Testu liburuen balio didaktikoaz mintzatzeko orduan ere kezkatzeko moduko gogoeta egin du Bilbaok. «Euskal Herriko testu liburuak konparatuz gero, didaktikoki Iparraldekoak aberatsagoak dira (Euskal Herriaren gaia alde batera utzita), liburuak zehatzagoak eta didaktikoki egokiagoak dira». Baina mendeetan ez dela beti hala izan aipatu du.

«Mende hasieran, Eusko Ikaskuntzak kongresu handi bat antolatzen zuen, eta Europako eskola berriaren eragina jaso zen. Bertoko irakasle eta pedagogoen horren berri zutelako, testu liburuak oso modernoak ziren. 1920-1925. urteez ari naiz gutxi gorabehera, *Xabiartxo*ren sasoiko testu liburuek. Oso modernoak ziren, zentzu didaktikoen. Europara begira egiten ziren testu liburu haiek, iparraldera begira. Gaur egun, ostera, behera begira egiten dira, Espainiara begira».


Eta argialetxeen irizpideek agintzen dute halakoetan. Euskal Herriko eskoletan erabiltzen diren euskarazko testu liburu gehienak itzulpenak dira. Euskal Herriko bi edo hiru argitaletzek soilik lantzen dituzte testu liburuak egun: Erein eta Elkarrek, eta Ibaizabalek ere bai, kasuan kasu. «Eta horiek kaleratutako liburuetan ere Euskal Herria gai bakar batean lantzen da». Kexu agertu da Begoña. «Azpimarratzeko moduko kontua da hori: Euskal Herria gai bat da, ingurunearen ezagueraren alorrean kokatzen dena. Zera uste dut: batetik, Euskal Herria ez dela eskolako curriculum osoan lantzen. Ez dago hala bideratuta, behintzat. Irakaslearen eskuetan geldituko da lan hori guztia. Ez dut esan nahi beti Euskal Herriak izan behar duen ikasgai, baina aparteko gai bat izateak zera sortzen du: gaur gaia emango dugu eta kito, hor amaituko da kontua».

Zubia

Baina curriculumaren arazoa da soilik? «Berez, curriculumak malgua eta orokorra da. Ikastetxeak eta irakasleak berak haien lana curriculumean oinarritu behar dute, baina azken lana irakaslearena da. Beraz, badu irakasleak zeresanik», iritzi dio. Dena dela, testu liburuen erabilera zabal da ikastetxeetan. Bestalde, teoriarik gehien araberak, testu liburuak indar handia du ikaslearen nortasuna bideratzeko eta eraikitzeko orduan. «Indar handiko tresna da, teoriarik, ordenatu egiten baitu eskolan egiten den lana. Dena den, irakaslearen lana kontuan hartzekoa da. Egia da, euskaldunok bagarela, eta ez dugu sekula izan halako testu libururik».

Testu liburuen indarra ez da aurretik ikertu Euskal Herrian: «Hurbilketa ez gainbegirada egin dira, baina unea unekoak. Euskal Herriko historiaren inguruan ere aritu ziren, baina ez da aztertu zein mota-tako edukiak lantzen diren». Mundu mailan ere gauza berria da, 60ko hamarkadatik hona hasi dira edukiak zehatz aztertzen. Orduan ere historia kontuak begiratu izan dira, gai gatazkatsuek direlako. Horregatik, ikerlanak hausnarketarako gonbita izan nahi du, besteak beste.

Ardatz 5, Giza -Natur arloa. Bigarren aroko testu liburua, B eta D ereduetan erabiltzen.



Ingurunea 5. Gaur egun erabiltzen diren testu liburuetako bat da. Erein argitaletxeak kaleratutakoa.

Conocimiento del medio testu liburua. Anaya-Navarra argitaletxeak kaleratutakoa.



Iguzki Lore, Bizidunen mundua. Ikas Bik argitara emandako testu liburua. Gaur egungoa.

BEGI ERTZETIK

3

Euri egun honetan, Baiona Txikiko karrketan etxerantz zuzentzean, badakit ez dela irrirako garaia. Ahaide urrun bat gurutzatzen dut, txapela haizearekin kasko gainean trebes: agurtzen dut eta hiztegia ahanztear bailitzan zeraren zeraka ihardesten dit. Murru zikinetan, matxinatu zaunkatzen didaten Segiren zuri-beltzeko afixak begizatzen ditut. Ez dakit errebolatzeaz aparte, zer den hemen matxinatzea. Gureak ez diren eleez eramaten dira gaurko borrokak. Hargatik, ez da aditz eskasia ene irri zozoaren oinarria.

Hizkuntza Kontseiluaren 'Mintza'

ITXARO BORDA IDAZLEA

Little Baiona X

aldizkariaren hirugarren zenbakia eskuratu eta irakurtzen dut Euskararen Salbatzeko Planaren epe-muga 2010etik 2015era pasatu dutela. Erakundeek eta euskararen alde tematzen diren

batasunek galtzeak dagoen mintzairaren behar gorria dutela agertzen zait berriro argiki, beren eguneroko izaeraren, euskalduntasunaren ohore-boterearen eta soldaten justifikatzeko. Alabaina, zer egin lezakete estratego horiek orok sekula euskara goizegi salbatzen balitz? Bat-batean hasten bagina kripto-euskaradun autoktonoak bara-bara eleketan, haiek izenpetu ofizialtasuna lortu aurretik? ESParen top-kronoa orain bost urtez gibelatu digutela, mutu jarduteaz besterik ez dugu. Anartean, kargu-kaieraren araberako inkesta soziolinguistikoak, aburu ikerketa ekonomiko-juridikoak, mahai-inguruak eta bizkundearen bideko manifestaldia jasatekoak dituzkegu. Eta, bizkitartean, sakrifizio pertsonal entzutetsuak zutabe, euskara borroka armatu eta ez-armatu guztien bizkarrezurra gera bedi, nehoiz erabili, baliatu edo zikindu gabe. Euskararen gain nabaritzen den hipokrisia nagia izugarria delako, piza zaharra urrintzen duten karrika hertsiotan, irri zaintsu gogoa dut.

Afera horretan, abertzale suhar eta sutuak ez dira presatuena. Ontsa tratatuak litezke, ESP bezalako xede batez euskararen obligazio gutxienez morala inposatzen balitzaie. Hauek ere euskara laborariz, bertsolariz edo demagun, ideologiari konformatzen ez direlako irakurtzen ez dituzten idazleek moldatu jende xehe euskaltzaleentzat daukate. Ekin politikoak ESParen hizkuntza nagusia eskatzen du baike eta eiki.

Segur aski, 2010. urtea hurbiltzearekin, Euskara Salbatzeko Planaren epea beste hamarkada batez atzeratuko da, biltzar publikoetan ne, ar hipa eta auhen. Denek bizi behar dute etik sobera aldendu gabe eta eskerrak Quebec hor dagoela adibide... Orduan, ene intzur algara indio desjabetu bilakatzen da. Non hago Kevin Costner?

Bilatzen ziritut Little Baionan Mikel Ibagurennek biziala.